

Ze barri?

ESKORIATZA eta GATZAGAKO HILABETEKARIA

2000
OTSAILA
37. zkia.

Uslatik Landetara

Elkarrizketa: Eugenio Otxoa,
Gatzagako Alkate-ohia Poloniarra

Erreportaia
Ihateriak, aintzínako ohiturak
berreskuratuz

Eskoriatzarrak munduan: Tanzania
eta Kenia basatian

**Badator Kukumarroa,
Ihateri kolorez**





beharrezkoak gara



ezker batua

carpinteria
leniz

ARozTEGIA

Tfnoa. 943 71 49 36

**ANGEL
Aseguroak**

Autoak, Etxeak, Bizitza, Istripuak,...


Arana, 19 Behea • Tf. 943 715203

ESKORIATZA



Aluminios
KURTZEBARRI
Aluminioak

**ALUMINIOA/P.V.C.a/POLIURETANOA
ALUMINIOA-EGURRA
PERTSIANAK ETA OSAGAIK**



Araba Ibilbidea, 17

Tel: 943 79 28 41 • Fax: 943 79 79 06
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)

E-mail: kurtzebarrilehioak@euskalnet.net

San pedro 9, 1 behe
20540 ESKORIATZA
Tel. 943 71 54 34

ARGITARATZAILEA:
AXTROKI
Kultur Elkartea

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Imanol Garmendia
Garikoitz Kortazar
Andoni Bengoa
Lorea Agiriano
Lourdes Martinez

KOLABORATZAILEAK:

Aitor Urrutia
Asier Errasti
Aitor Uribe Etxebarria
Iñaki Agiriano
JJ. Arrieta
Jon Errasti
Museo Eskola

INPRIMATEGIA:

Eguzkigraf, Koop. Elk.

TIRADA:

2.000 ale

LEGE GORDAILUA:

SS - 200/99

ISSN:

1139-9856

ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



ESKORIATZA




GATZAGA



Eskoriatza eta Gatzagako
Udalek diruz lagundutako
aldizkaria

ZEBARRI?.COM



“Informazioak ez gaitzan menpean har oso garrantzitsua izango da baliabide berriak, internet, alegia, ezagutzea eta geuk baliabideak nahiz informazioa menperatzea”

Ez zaitez oraindik saia orri hau zabalzen, kreatu barik baitago. Baina, izan ere, laster - hilabeteak?, urteak?, agian - izango duzu aukera Zebarriko orriak interneten bitartez kontsultatzeko. Internet, bai. Azkenengo hilabeteetan, neuk behintzat, ez dut beste hitzik entzuten. Haurrek ere, bere lehenengo jostailutakoa eskatzerakoan ordenagailua eskatzen dute eta internetera konektaturik badago hobe. Ordenagailuak eta internet bizitzaren eremu guztietan zabaldu dira, baita hezkuntzan ere.

Bill Gates-en ametsa bete egin behar dela uste dut azkenean. Behonek, ikasten ari diren ikasle

belaunaldi berria "Belaunaldi I" moduan bataiatu ei du. "Internet" hitzaren "I" a, hain zuzen. Eta internet esaten dudanean "informazioaren I-a" aipatzen nabil. Informazio itsaso ikaragarri handia besterik ez baita internet. Informazioz inguraturik bizi gara, eta informazioak ez gaitzan menpean har oso garrantzitsua izango da baliabide berriak, internet, alegia, ezagutzea eta geuk baliabideak nahiz informazioa menperatzea. Hau da, itsaso zabal eta handi horretan arrantzale trebeak bihurtu behar gara arrain preziatuenak - behar dugun informazioa, eta ez beste zaborrik - arrantza ahal izateko.

Ikasleak gero eta gehiago erabiltzen ari dira internet. Baina gu irakasleok, bitartekariok, gertu al gaude berrikuntza hauek asimilatzeke?. Adituek diote, hezkuntza eta gaiak emateko era zeharo aldatuko direla. Irakaslea, jadanik, ez da izango iturri bakarra; aitzitik, bera ere behartuta egongo da ikasle iraunkor bat izatera.

Egia da, baliabide berri hauen aldeko jarrera dudala eta, argi ikusten dut ere, etxean nahiz ikastolan gero eta gehiago erabiliko direla. Baina, gure Euskal Herri maitean ikastolek arazo larri bat izaten dute ordenagailuak eta internet erabili nahi dituztenean, euskarazko programen eskasia, alegia. Nola konpondu, ordea, arazo larri hau?. Liburu euskarrian euskarazko dokumentu gutxi baldin badago, zer esan dezakegu interneten - etorkizuneko liburutegian - euskaraz dauden dokumentu urrien gainean?. Ugarituko al dira, hauek?. Zebarriko.com????

Inaki Agiriano

LABURREAN

Apotzaga, "Hilarria" film-aren eskenatokia

Aitor Mantxola oñatiarrak, Juamma Bajo Ulloaren zenbait filmetan argazki-zuzendari lanetan aritu izan denak, eta Manu Gomez arrasatearrak, martxoan ekingo diote film labur honen errodiari. Apotzagako hilerrian hasitako grabaketa lanek Araotzeko eskola zaharrean izango dute jarraipena eta dena, zazpi minutu eskas irauten dituen gerra garaian girotutako historio berri bat kontatzeko.

Filma hitzik gabe eta oso modu bisual eta poetikoan grabatuko da. Protagonistak, berriz, Maider Egues eta Arrasaten bizi den Ian McGregor eskoziarra izango dira.

Ze Barri?, aurpegi berriak eta itxura berria

Honezkero, jabetuko zineten aurtan Ze Barri?n aldaketa batzuk izan ditugula. Alde batetik, aldizkaria mamitzen lagunduko duten kolaboratzaile berriak izango ditugu aurrerantzean. Bestetik, Maiteri esker -Elgoibarko neska fin honek Jardunen lan egiten du- itxura aldaketa nabarmena egin diogu aldizkariari. Gainera, gure erredakzioa aurkitzen den lokal xumea ere berrantolatu genuen oporrak aprobetxatuz. Honetan ere, laguntzeko prest agertu ziren EGASeko gazte prestu hauek. Ze Barri?rekin kolaboratzen duzuen guztioi eskerrik beroenak!

Aerobic zerbitzua kendu

Eskoriatzako udalak aerobic zerbitzua kentzea erabaki du. Bi arrazoi nagusik bultzatu du udala erabaki hau hartzera: batetik, zerbitzua hobetu beharra dagoela ikusten du udalak eta orainarteko lokalak baino baldintza hobekiago izango dituen beste lokal bat egokitu beharko da. Kiroldegian moldatu nahi du udalak lokal berri hori. Bestetik, udalak kirol zerbitzu guztiak kiroldegian zentralizatzeko beharra ikusten du.

ASTE KULTURALA LUIS EZEIZA IKASTETXEAN

Urtarrilaren 31 eta otsailaren 7 bitartean, Luis Ezeiza ikastetxean aste kulturala ospatu zuten. Ekintza ugari eraman zituzten aurrera antolatzaileek, hala nola; birziklai tailerrak, eskolen arteko joku tradizional eta herri kirolak, antzerkiak, ipuin kontalariak, zinema euskaraz, pailazoak, gurasoentzako hitzaldiak, eta beste hainbat aktibitate. Adin guzti-

etako haurrek parte hartu ahal izan dute aste kultural honetan, eta horrela beraien ezagutzak areagotu ahal izan dituzte jolastuz eta momentu alaiak igaroz. Dударik ez dugu, haurrek momentu alai eta ahaztezinak bizitzeaz gain ikasgelan bezainbat edo gehiago ikasi dutela aste kultural honekin.

Isabel hurrei ipuin bat kontatzen, aintzinako gizon bat alboan duela.



Hiruki pailazo taldeak "Kastaña pilonga" antzez-lana aurkeztu zuen ikasle guztientzat. Irudian ikusten da sortu zuten iskanbila.

Axtroki GOIENAKO partaide

Bere azken Batzar Nagusian Axtroki Kultur Elkarteak Goiena Komunikazio Kooerativako partaide izatea erabaki zuen.

Goiena Kooperatiba martxoan eratuko da juridikoki eta horren testigantza bezela **martxoak 13 goizean Goienkaria kaleratuko da** hauteskundeetan bailaran izandako emaitzen azterketa eginez. Hau, herri guztion arteko elkarlanak ekar lezakeenaren adibide bat besterik ez da izango, geroxeago garatuko dana.

2000. urterako aurrekontua indarrean

Diputazioko oniritzia jaso ostean indarrean sartu da jada, Eskoriatzako udalak 2000. urteko gastuei aurre egiteko izango duen aurrekontua, 692.027.552 pezetakoa izango dena. Iazkoa

baino aurrekontu baxuagoa izango du aurten udalak, hain zuzen ere, hiruehun mila pezeta inguru gutxiagorekin gastuei aurre egitea aurrirakusten baitu.

Iazko ekainean legealdi berriari lekuan eta udal batzordeak berrosatu zirenez, batzorde horiek udalean bestelako premia batzuk ere bazeudela ikusi dute eta ondorioz, alde batetik, aurten udalaren asmoa da, orainarteko zerbitzuetan eskaini diren zenbait gastu murriztea eta bestetik, hurrengo urteetan egingo diren proiektu esanguratsu zenbaiten idazketak egitea. Partida esanguratsua, hogeita milioi pezetakoa, izango du udalak proiektu horien idazketarako. Beraz, aurten ez da aurrirakusten iaz egin ziren besteko inbertsioak egitea eta hauxe dugu iazko aurrekontuaren eta aurtengoaren artean dagoen aldea azaltzen digun beste zergati esanguratsua.

Bestalde, 1999an inbertsio asko sartu ziren udal aurrekontuetan eta proiektu horiek aurten bukatzea espero da. Besteak beste, honako proiektu hauek ordainduko dira iazko aurrekontuan jaso zuten partidarekin:

- Kanposantuaren berrantolaketa: uztailerako egingo da.


- Auzoetara Urkuluko uraren ekarpena: Bai Apotzaga elizatera eta baita Bolibarrera ere. Bolibarren lehen fasea egin dago, hots, Zubiztarroan ur horniketa horiek egin dira. Orain bigarren fasea egitea falta da, elizondoko baserriak Urkuluko urez hornituko dituena.

- Haurrentzako piztina.

- Ludoteka: Gorosarri plazan egokitu zaion lokaleko obrak ordainduko dira partida honekin.

Aurtengo aurrekontuetan ere Hirigintza sailak jasoko du diru partida esanguratsua. Gutxien, berriaz, aurtengo legealdian sortu berri den sail batek jasoko du, Emakumeak sailak hain zuzen ere. Sail honek

1999. urteko aurrekontuarekin hasi dira Urkuluko urak ekartzen Apotzagara.



750.000 pezetako aurrekontua izango du, ekintza puntual butzutara bideratuko dena, besteak beste: Emakumeen Eguna, ikastaroak, hitzaldiak, bideo-forumak, erakusketak...

INBERTSIO GARRANTZITSUENAK:

Arestian aipatu bezala aurtengo aurrekontuetatik partida garrantzitsuena hirigintza batzordeari egokitu zaio. Diru honekin egingo dira, besteak beste, jarraian aipatzen ditugun zenbait proiektu.

1) Elizateetara ura sartzearia 44 milioi pezeta.

Aurtengo aurrekontuaren diru partida esanguratsu bat, Geilao elizatera Urkuluko ura eramateko erabiliko da. Horrela, Eskoriatzako elizate guztiak Urkuluko urez hornitzea lortuko da. Izan ere, joan den urteko aurrekontuekin dagoeneko Apotzagara eta Bolibarrera urak sartzeko obrak hasiak dira jada.

2) Almeneko harrizko horma: 25 milioi pezeta

Almen atzekaldean, Eskoriatzako sahiesbidea egin zenean ateratako lur eta harriekin eginiko hon-

dakindegia zegoen. Arazo handiak eman izan ditu hondakindegia honetarako lujauziak direla eta. Momentu honetan Almenek kiroldegiaren zati bat itxita du arrazoi honengatik. Aurtengo aurrekontuetan 25 milioi gastatuko ditu Eskoriatzako udalak lurak eusteko horma sendoa egiten.

3) Olazar auzoaren urbanizazioa. 35 milioi inguru kostako da.

Aurtengo inbertsio gogorrenetakoa dugu honakoa. Proiektu honekin Olazar auzoko zonalde batean- Estankotik Sorautzera doan bidean- espaloi berriak ipiniko dira. Udalak presupuestoa egiteko aukera ezberdinak aztertu ondoren enpresa jakin bati esleituko dio proiektu hau egitearen ardura eta espero da obra horiei uda ostean ekitea.

Luis Eceiza ikastetxeari: 8.250.000 pezeta

Aurtengo aurrekontuetatik zortzi milioiko diru-laguntza emango zaio ikastetxe honi, teiltuan, sotanoetan etab. egin beharreko konponketetan laguntzeko.

Kintoak Santa Agedari ohore eginez

Hemezortzi mutil soilik izan arren, aurtengo kintoak saiatu dira humil, baina, gogotsu, eskean egin eta Santari ohore egiten. Santa Ageda batzen ibili ziren egunak pasa ahala, geihenak, eztarria urratuta bukatu zuten. Aipamen berezia merezi dute, bestalde, aurtan kintoekin batera, trikitixaren doinuaz lagundu nahirik eta mutilen eztarri urratuak goxatu asmoz, etxerik etxe ohitura zaharrak berritzen gogotsu aritu diren 82. kintako bost neska jator horiek.



Zuhaitz Eguna ospatu zen otsailak 26an

Ingurugiro sailak antolatuta ospatu zen zuhaitz eguna iragan larunbatean. San Pedroko parkean bildu ziren, 6-10 bitarteko berrehun haur inguru, atxurrak hartu eta zuhaitzak landatzeko.

Hamarretakoa egin ondoren ekin zioten lanari. 25 gerizondo Diputazioaren dirulaguntzaz landatu ziren. Beste hogeitabost frondosa, labaderotik ekarri ziren.

Zuhaitz egun honen bitartez lortu nahi dena, zera da, gure ingurugiroaren garrantzia ezagutzea, eta bide batez zuhaitzen berreskuraketan parte hartzea.

Ekintza hau oso positiboa izan zen.



Presoen Alde giza katea.

Eskoriatzan Presoen Aldeko Plataforma sortu berri da. Plataforma honek, Deba bailarako Plataforma zein gazte ekimen ezberdinek bezala, behingoz, dispertsioa buka dadin eta presoen eskubideak bete daitezzen, lanean segitzeko asmo tinkoa erakutsi du. Zentzu honetan eskoriatzar guztiei gonbitea luzatzen die, **Aretxabaletan, Martxoak 5 igandea**, arratsaldeko 6etan, Deba Goieneko plataformak zein gazte ekimen ezberdinek deituta, **ihauteri giroan burutuko den eskualdeko giza kate erreibindikatiboan parte hartzeko.**

Badator Insumiso Eguna.

Martxoaren 11, gogoetarako eguna izan arren, insumisoek era zaratatsuan, kotxe karabana batek herria zeharkatuz, ekingo diote jada tradizionala bihurtu den egun honi. Eguerdian trkitilariak tabernetan. Eta bazkaria, baba jana, plazan eguraldi onarekin eta bestela frontoian. Bazkal ostean, bertsolariak eta betiko jokoak. Gazte Asanbladakoek ere pentsatua daukate parodia bat egitea. Ilunkaran talde ezberdinek tabernatan joko dute. Gauean, festa giroa nagusituko da Txatunga Benbe txaranga sonatua kalez kale ibiliko da eta hamabietan, insumisioaren aldeko manifestazioa. Animatu eta parte hartu.

ALZA

Sukaldeko tresneria

Aingeru Ibiltokia, 3
Tf. 943 714131/943714256

TOKI ALAI
Taberna

Tfnoa.: 943 714729

KARAJILOETAN ESPEZIALIZATUA

GOLO
gazte moda

Tel.. 943 71 45 61

VILLAR


APAINDEGIA

Tfnoa.: 943 715042

EUGENIO OTSOA

Leintz Gatzagako alkate ohia

Gatzaga utzi eta Poloniako Wroclan hiri handian galtzeko beldurrik gabe joan zaigu Eugenio. Joan aurretik agurtzeko aukera izan genuen eta aurrerantzean, polakoz hitzegiten ikasteaz gain, beteko dituen asmoen berri eman zigun.



- Zenbat denbora eman duzu alkate moduan?

- Aurten 13. urtea izango litzateke, hiru legegaldi osoak eta oraingoa.

- Denboraldi honetan zeintzuk izan dira Leintz Gatzagan bete dituzuen proiekturik garrantzitsuenak?

- Nire ustez proiekturik garrantzitsuenak herriaren erreabilitazioari dagozkionak izan dira, frontoia, udaletxea, plaza... Diru eta problematika aldetik, etxebizitza publikoak egitea izan da proiekturik indartsuena. Beste alde batetik, gatz fabrika eta mendi etxeak ere proiektu garrantzitsuak izan dira.

- Poloniara zoaz, nora konkretuki? Zertara? Ze espektatiba daukazu?

- Wroclan-era noa, 500000-600000 biztanleko hiria da eta Varsobia hegoaldean dagoen Oder ibaiaren bi aldeetan kokatzen da. Fagorrek Wrozamet enpresaren %75 erosi eta gero 3-4 pertsona goaz eta nire funtzioa arlo industrialeko proiektua martxan jartzea izango da (produktzioa gehitu eta beste produktu berri batzuk egiteko bidea gertatu). Gutxi gora behera 3 urteko proiektua.

- Zerk bultzatu zaitu erabaki hau hartzerantz?

- Bariabile asko badaude ere, gehien bultzatu nauena proiektua asko gustatzea izan da eta gainera neuzkan aukeren artean onentsuena iruditzen zitzaidan. Nahiz eta abenturero

- Internet bidez izango al zara zinegotzi?

- Bai, zorionez gaur egun komunikazio bideak asko aurreratu dira eta errazagoa da komunikatzea. Hala ere, ez daukat deskonektatzeko asmorik, hamabostean behin etor-

" Hemendik ilusio asko, oroipen onak eta bueltarako itxaropena eramango ditut."

adina pasatuta eduki, konponente hori ere egon daiteke tartean.

- Eta orain, alkate gabe geldituko al da Leintz Gatzaga?

- Ez, ez, ez... Zorionez nik amestutako gauza bat gertatu da, azkenengo legegaldian gogo oneko jendea sartu da, ez dut esan nahi aurrekoak ez direla gogo onekoak izan, baina aurtengoan aldaketarako jendea agertu dela uste dut. Orain, bost zinegotzi izan ordez zazpi dauzkagu eta aukera gehiago izan da. Ekipo ona dago eta alkate berria ona izateaz gain ni gaudituko nauena izango dela uste dut.

tzeko ahalmena izango dut eta nire nahia izango litzateke, beraiek eskatu bezala, eta harro nago horregatik, zinegotzi bezala jarraitzea.

- Zer eramango duzu hemendik eta zer uste duzu faltan botako dezula gehien?

- Hemendik ilusio asko, oroipen onak eta bueltarako itxaropena eramango ditut. Gehien faltan botako dudana hemengo erlazio mundua da, familia, lagunak eta baserritar munduarekin kontaktua. Hutsune hori betetzeko lana izango da gauzarik onena, apur bat integratzea, hizkuntza berri bat ikastea...

Aranburuzabala, 22 -bajo
 Tfnoa.: 943 71 51 20
 ESKORLATZA

AZKOAGA
 ESTANKOAK
 Zure zerbitzura

RELE
 Faustino Legazpia
 Tel. 943 71 40 72

ESKORIATZAKO IHAUTERIAK, SUSTRAIAK BERRESKURATU NAHIEAN

Badatoz lhauteriak, neguari agur esan eta udaberriari ongi etorria emateko festa iritsi zaigu. Negu gogorraren ondoren eguna luzatzen doa, eta laister inguruko zelai eta mendiak koloretsu agertuko zaizkigu. Hala ere, festa honek ez du garai batean izan zuen garrantzia. Gaur egungo "aurrerapen" teknologikoek aldaketa hau arindu egin digute, eta ez dugu neguaren gordintasuna modu berean bizitzen.

Baina, nolako zen aintzina Eskoriatzako lhauteria?

Seguraski, gehienok ez dakigu nola bizitzen zuten jai hau gure arbasoek, eta pena bat da, gure kulturaren ondare garrantzitsua baita. Ohitura hauek berreskuratzeko asmoz duela hamabi urte, eskoriatzar talde batek, udaberriko jai hauen inguruan, ikerketa bat egin zuen. Ikerketan ondarearen zati garrantzitsu bat berreskuratu zen, kankak, ohiturak, eta beste hainbat datu bildu ziren. Herriko zaharrenei galdetuz eta hauen esperientziak idatziz. Honen helburua ez zen soilik beraien ohituren berri izatea, baizik eta herriko gazteek hau ezagutzuz, praktikan ere berreskuratzea. Horrela izan da, eta azken urteetan herriko haur nahiz nagusiek Kukumarroa ikusi ahal izan dute eskoriatzarrak izutu nahian. Urdelardero eguna ere ospatzen da, auzo nahiz baserrietako gazteenak ibiltzen dira lhauteri aurreko ostegunean etxez etxe, ziri handi batekin jana eskatuaz.



Kukumarroa, mendietatik jeisten zen basagizona

Kukumarroa zen aintzina garaietan herriko lhauterietako pertsonaia nagusia. Kukumarroak mendian bizi ziren basagizonak ziren, kristauak ez ziren aintzina gizonak. Basagizon hauek menditik jeisten ziren negu amaieran eta

herriko jendea zirikatatu eta bel-durtzen saiatzen ziren. Horretarako ziriez baliatzen ziren. Garizuman sartzeko hiru egunetan meza ematen zen Santa Anako ermitan, Tridio izenez ezagutzen ziren mezak, eta bertara hurbiltzen ziren Kukumarroak beren ziri edo puxikekin herriko jendea zirikatuz. Asteartean, karnabal egunean, herriko haurrek burla egiten zieten eta hauek korrika segi, baina haurrek babesa eliz barruan aurkitzen zuten edo bestela kristau sinboloak erakusten zizkieten atzera egin zezaten. Dirudienez, bi komunitate ezberdin bizi ziren garai haietan, komunitate kristaua eta komunitate paganoa edo ez kristaua. Bi komunitate hauen arteko erlazioak ez dakigu nolakoak ziren, baina dirudienez ez zuten tratatu handiegirik izaten. Euskal Herriko lhauterien bilakaeran aldaketa handiak egon dira, kristautasuna etorri aurretik dirudienez ospatzen ziren halako udaberriko festa batzuk, eta kristautasuna etorri ondoren festa hauek aldatzen joan dira. Baina beti izan dute naturarekin, udaberriaren etorrerarekin eta emankortasunarekin zerikusi handia. Naturaren emankortasuna udaberriak dakarrenez, sexu konnotazio handia du festa honek, hazia, lurra... Esan daiteke ohitura guztien moduan garai berrietara moldatzen joan direla. Esan digutenez Kukumarroa duela hogeitamar bat urte galdu zen eta duela hamabi urte Luis Eceiza

egizabal
oinetakoa

ARRASATE - Olarte, 14 - Tf. 943 79 66 01
BERGARA - Bidekurutzeta, 13 - Tf. 943 76 12 28

LIZARRALDE

KIROLAK

Foruen Plaza, 1-2. San Andres - Arrasate - Tf. 943 79 91 47
Olakua, 16 - Oñati - Tf. 943 78 29 86

ikastetxeko guraso elkartearen ekimenez ohitura hau berreskuratu egin da Eskoriatzan.

Berreskuraketa lana oso garrantzitsua da askoren ustetan, ondare kulturala berreskuratzeaz gain, norberaren sustriak ezagutzeak laguntzen baitigu gure bizitza ere hobeto ulertzen.

Gaur egun goizez haurrek hau kantatu egiten diote Kukumarroari, eta nahiz ohitura aldatu egin den berreskuraketa lan garrantzitsua egin da. Arratsaldez afari bat ospatzen dute. Esan deza-kegu, beraz, antzeko festa egiten dela.

Hau da haurrek Kukumarroari abesten dioten kanta:

*Kukumarro mozolo
Karnabaletan zoro
Korrikan dator puxikarekin
Ipurdian astintzera
Karnabaletan kanta ta salta
Gure bihotzak alaitzera*

*Negu gorria bizkarrean
Udaberria sabelean
Ongi etorria betek izan da
Udaberriko itxaropena
Karnabaletan kanta ta salta
Gure bihotzak alaitzera.*



1998ko ihauterietako irudia, bertan artzaiz nahiz artzai andrez jantzitako zenbait eskoriatzar agertzen dira

Urderlargero eguna, jan eskasiaren amaiera

Ihauteriei hasera emateko, ostegunetz, urdelardero eguna ospatzen da. Beste herrietan ostegun gizenez ere ezaguna dena. Festa honen arrazoia, neguan izandako jan eskasiaren amaiera ospatzea da. Udaberria dator eta honekin batera janari gehiago, bizitza errazagoa.

Gure etxeetan ez dugu horrelakorik somatzen, Eroski eta horrelakoetan ez baitago inoiz janari faltarik. Baina aintzinako garaietan bai, gure arbasoek gorriak ikusten zituzten negu luzea izaten zenean. Horregatik, eguna luzatzearekin batera, ihauteri festa hauen barruan, baserrietako haurrak, baserriz baserri kantari aritzen ziren janari eske. Makil edo ziri handi bat ematen zuten beraiekin eta jana bertan sartzen joaten ziren. Esan behar da festa hau gehiago mantendu dela baser-

ri inguruetan, ez horrela herrian. Gaur egungo haurrak ere ateratzen dira egun honetan merixendia egiteko janari eske.

Beraz, sei eta hamar urte arteko haurrak aurten ere ikusiko ditugu baserriz baserri urdelardero egunez kantari janari eskasia bukatu dela ospatuz.

*Urdailardero, udaixa jan da
Garbaixa gero
Hor errekan harri bat
Honen gainien txori bat
Hor goien iturri bat
Ura pil-pil etorri
Etxekoandre zabala
Etxe oneko alaba*

autos
MURU AUTO KONPONKETAK

Autos Muru S.L.
Araba Etorbidea, 3
20500 ARRASATE
Tfnoa. 943 792716

HONDA motorrak

Motorren konponketa eta salmenta



ZERBITZU OFIZIALA:

HONDA **YAMAHA** **PIAGGIO**

SELENA **PEUGEOT** **RIEJU**

TANZANIA ETA KENYA, MASAIEN LURRALDEA

Badira ia berrehun urte Livingston doktore britainiar famatuak Kenya eta Tanzania munduari ezagutarazi zizkiola, baina oraindik ere, Serengeti, Ngorongoro edo "masai" hitzak entzutean, Afrika Beltzak zirrara berezi bat pizten du bidaiariarengan. Oraindik guztiz esplotatu gabe eta Naturak bere legea ezartzen dituen lurraldeak badira munduan, eta horien bila heldu ziren Asier Sologaistoa eta Leire Ezpeleta bere laguna Arushara, Kilimanjaro mendiaren oinetan dagoen hirira.




Etan bertan National Geographic-eko telesailetan azaltzen ez den errealtatearekin egin zuten topo. Bidai antolatuek eskaintzen duten babes eta segurtasunik gabe, Arushan Tanzania ezagutu ahal izateko beharrezko bahimenak lortu eta ordaindu beharra zituzten, Kilimanjaro higo edo eta Parke Naturala sartzeko kontrol militarrik baitaude; horren kontu aurkitu zuten beraien dolarren jabe egiteko prest zeuden hainbat lagun.

Kilimanjarora bidean

Kontuak kontu, Arushako Parke Naturalean egun bateko txangoa egin eta lehenengo elefante, jirafa eta bestelakoekin txundituta gelditu ondoren, Moshira jo zuten, Afrikako tontorrik garaienera igo-tzeko asmoz. Mendi bakoitza ezberdina omen da, baina badaude batzuk beste batzuk baino ezberdinagoak; hoi artean dago Kilimanjaro, Uhuru Peak, Askatasunaren tontorra. Bere 5898 metrotean zehar, izugarriko landaretza eta fauna aberastasuna sortzen da ia egun osoan zehar mendia estaltzen duen lanbro laino hezeari eskerrak. Marangu izeneko bidetik igotzen zihoazten eanean, lehen kanpamentuetako landaretza tropokaletik hasi, eta paisai siku eta bolkanikora heldu ziren. Hala ere, tontorrera heldu gabe eman behar izan zuten buelta, altuerara ohitzeko denbora gabe eta mendirako janari egokirik gabe joanda, leer eginda gelditu bait ziren 5000 metro inguruan. Bidaiaren hasiera gogorra eta desatsegina gogoratzen dute Asier eta Leirek, baina oraindik momentu eta abentura politak zituzten bizitzeko Tanzaniako sabanan zehar.

Serengeti, Ngorongoro, Tarangire eta Manyarako Parkeak, masai

gerlarien erreinua, sabana guztia zeharkatzeko erabili zituzten todoterrenoan gainean ezagutu zituzten Asier eta Leirek, beraien aurrean azaltzen ziren animaliekin txundituta: Zebra eta Ñuak ehundakako taldetan, ia ukitu ahal izateko beste hurbiltzen ziren elefante eta jirafak, ur putzuetan pelikanoak, ibisak, flamenkoak..eta kokodriloak, hipopotamoak.. eta denen gainetik, erregea, lehoia: *"Harri-garria zen- kontatu zigun bikoteak beste animali guztiak zeuden lekutik pasatzean, denak korrika irtetzen ziren, lehoiaren inguruan korro haundi bat eginez"*.



Beraiekin batera, bikote alemaniar bat ere bazen, bidaiatzen sekulako esperientzia zutena. Beldurra ere pasa omen zuten askotan; ez zaie erraz ahaztuko ez Tarangiren elefante eme batekin izandako eskapada, ezta ere gaua sabanaren erdian, lehoien orroen artean eta kanpamenduaren inguruan eskopeteroak zelatan zituztela lo egin behar izan zutenekoa ere. Hogei egun ahaztezin pasatu zituzten sabanan zehar, Arushara bueltatu, autobusez Tanzaniako hiriburura, Dar Es-Salaamera joan, eta Ozeano Indikoko irla ederretako batean, Zanzibarren atsedean hartzera joan aurretik.

Zanzibar, Atsedenerako leku paregabea.

Madagascar, Seychelles edo Comore irlek agian ezagunagoak

diren arren, Indikoa paradisu ttikiz beteta dago, eta Asier eta Leirek Zanzibar inguruan dauden irlatxo batetan aurkitu zuten beraiena. Turkesa koloreko ura, palmeraz betetako ondartza txuriak, kolore biziz apaindutako arrainekin betetako koralezko arrezifeak...Aurreko egunetan sabanan galdutako indarrak berreskuratzeko leku egokia, duda barik. Turistikoki oraindik ia birjiña den leku hartako biztanle bakarrak, hondartza inguruan zeuden etxoletan bizi ziren "rasta"k omen ziren. Errepiderik ere ez omen zegoen han, baina itsasotik atera berri zegoen mariskoa prestatzen zuten txiringito bat bai, ordea. Kilimanjaro igotzen galdutako kiloen buelta etorri zen han.

Beraien oporrak bukatzeko, Zanzibarretik Mombasara joan ziren ferryz, Penba irlak ikusi eta Tanzania eta kenyaren arteko muga barkuz eginez; eta handik Nairobiara. Hiri jendetsu eta zarata-tsua omen dira Afrikakoak, eta arriskutsuak ere bai, gauzez batez ere. Nairobi inguruan, baina badago zer ikusia, "Memorias de Africa" filme famatua errodatu zen etxea, adibidez, eta baita desagertzeko arriskuan dauden zenbait animali berreskuratzeko sortutako zentru bereziak, adibidez. Orain, etxera bueltatzea gelditzen zitzaien bakarririk, oroimenean mila momentu ahaztezin eta berriz kontinente beltzera bueltatzeko gogoak zekartela.

Indikoa

paradisu ttikiz beteta

dago, eta Asier eta Leirek

Zanzibar inguruan dauden

irlatxo batetan aurkitu

zuten beraiena



Ihauteriak eta hauteskundeak datozela eta, zein politikariri kenduko zenioke mozorroa? zergatik?




ANTONIO GUIRAO

Nola izena du apaiz horrek...
Arzallus. Nere ustez ez daki benetan zer nahi duen.




IMANOL MADINABEITIA

Denei, orokorrean denei. Politikan gauza asko estali behar izaten dira, onak eta txarrak, oso konplikatuak da dena.



ARKAITZ IDIGORAS

Aznarrei, fatxa disfrazatuta daukolako.




GORKA AIZPITARTE

Danei kenduko notzan, azkenean karnabala eta politika oso antzekoak dira...



BENIGNO ELKORBARRUTIA

Benetan libertadia nahi baldin badugu, bakoitzak gura dauen mozorroa jarri deixiela.



MARI KRUZ IZURRATEGI

Aznar presidentiai, nerretzat behintzat faltzu bat dalako.



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

GAIA

Frantziako Estatuan, emakume presentzia parlamentuan legez arautu dute, diskriminazio positibo bat emanez

Ez daukat duda izpirik ere. Lehen urratsa baino suposatu ez arren, Frantzian hartutako erabakiarekin bat nator. Eta lehen urratsa baino ez diot, albokoak azkar aguro esango duen bezala, neurri horrek ez duelako politikagintzan emakumezkoen presentzia eraginkorra ziurtatzen, ezpada zerrenden erdia osatzea baino. Zein erdi, gizakumeak agintean diren artean atzekoa beteko dutela argi dago, aurpegia zuritzeko aurrealdean jarriko dituzten gutxi batzuen izenak izan ezik.

Baina, esan beharra daukat, baita, urrats txikia izanik ere urrats garrantzitsua dela. Asko dira kuoten bidezko diskriminazio positiboaren aurka jotzen dutenak, pertsonak dituen merituen arabera baino ez litzatekeelako iritsi behar erantzukizun postuetara. Dena dela, inguru gertuenetik hasi, eta ikusi baino ez dago gaur egun politikagintzan ari diren gehienen "merituak" noraino jotzen duen. Kontuan izanda ale bakantsuak izan ezik gainontzeakoak gizonezkoak direla, pentsatuko nuke sexuagatik, hau da, arra izateagatik daudela dauden tokietan; beste modu batera esanda, sexu diskriminazioagatik.

Zerrendetako %50 emakumez osatzeak ez du ziurtatzen hautatuen erdia osatuko dutenik, baina bai emakumeak areagotuko duela bere presentzia politikagintzan. Eta hala bada, ziur izan guztiok irabaziko dugula, batez ere euren erabakien menpeko izango garenek. Irabaziko dugu emakumearen ikuspuntu berria, sentsibilitatea eta malgutasuna, gairik latzenak leunki lantzeko trebezia, gaitasuna edozertan amultsuki aritzeko, inteligentzia... Irabaziko dugu, azken finean, populazioaren erdia baino gehiago suposatzen duen sexua proportzioan dagokion neurrian ordezkaturata egoteko bidean jarriko delako neurri honekin, eta gauzak justiziaz egiten direnean, gizakume zein emakume, guztiok irabazten dugulako.

Gainontzeko guztiak aitzakiak, boterearen kirtena utzi nahi ez duen matxokraziak jarritako aitzakiak, edo amarrudun legeak baino ez dira, Frantziakoa bezala.. Izan ere, kontua ez da-eta emakumeak sartzeko kuotak ezartzea, betidanik erantzukizun postuetan gizakumeak baino eduki ez dituen egoera bati berezko oreka ematea baino. Eta ahalegin horretan, momentuz, Frantzian hartutako erabakiaren antzekoek aurrerapausoa suposatzen dute.

Kontrakoak, esan bezala, beldurra edota gizarte matxista baten aurriritzia baino ez du suposatzen.

Baditu Legeak hainbat ezaugarri gaurko gaiari ezetz esatera naramatenak, legearen mamia batera ezagutu barik gainera.

Legea ez da finkoa, morala bezala usadio eta ohituren arabera aldatzen doa, bai denboran bai tokian. Eritzien ondorio diren jarrera eta jokabideak arautzerakoan, gizartea beti doa legegilearen aurretik, eta gizarteak izaera, jokabide eta pentsaerak onartzen eta norbereganatzen dituenean, orduan - eta ez lehenago - dator Legea den-dena arautzera. Adibideak nonnahi: dibortzioa, abortoa, "adulterioa", heriotza zigorra, ...

Legeak alde zuzeneko egoera hobetu behar du, edo gaizki dagoena (gaizki araututa, ojo) zuzendu.

Baina tira, kontua da Frantziako lege berri horrek ustez arautzen duena zera dela: norbanakoaren eskubidea hautagai izatera. Hemen komenigarria iruditen zait "norbanako" hitza azpimarratzea, lege zaharrak ez baitu arautzen zerrenden konposaketa, zerrenda gizonezkoak edo emakumezkoak osatu behar duten zehaztuz. Eta hemen dago lege berriaren azpikeria, askatasunberdintasun-eskubide hitzekin ahoa betez eta burua nahastuz lege horrek egiten duena hau da: botua ematera doanari hautatzeko eskubidea kendu erdi eta erdi bozkatzera behartuz. Zergatik ezin ditut nik neure botoarekin denak emakumezkoak, denak gizonezkoak hautatu, edo nik neuk egoki ikusten dudana heinean gizon eta emakumezkoak zerrendan nahasi, gusto, sentsibilitate eta gaitasunaren arabera, neure ordezkariak izan behar badira?.

Dena partidokrazia santuaren izenean, partidoari (erdiak gizonezkoak, erdiak emakumezkoak -!?) botoa eman eta kitto. Akabo. Point.

Hortaz bada, ez baditugu pertsonak hautatzen, zertara dator zerrendan datozeinei sexua jartzea?. Hautagai eta botuemaileen eskubideak gorde/zaindu behar badira ez litzateke hobe izango zerrenda irekiak jartzea? .

Lege hori ez dago berdintasuna ekartzeko egina, irudi kanpaina bat egiteko baizik. Denborak erakutsiko digun bezala ez du inolako eraginik izango Frantziako hurrengo Asambladaren konposizioan.

Berdintasuna ez da legearen eskutik etorriko, berdintasunak berak ekarriko digu lege berria.

jone eta jojo

Martxoak 2, eguena.
Urdelardero eguna

Goizean goiz: Ikastetxeetako umeen kalejira, Urdelardero eguna ospatu eta lhauteriei hasera emateko.

12.00 Kalejira amaitzeko plazan txistorra goxo-goxoa denontzat.

17.00 Txiki-Glup, Detraka taldearekin umeentzako jaialdia plazan (eguraldi txarra eginez gero, frontoian izango da).

Ondoren: Txokolatada mundiala (bakoitzak bere edalontzia eraman beharko du).

Martxoak 4, zapatua

19.00: Eskoriatzako **Trikitixa** Eskolako trikitilarietako kalejira.

20.00-21.00: Gau-bela taldearekin dantzaldia plazan.

23.00: Gau-bela rekin jarraituko dugu goizaldera arte.

Martxoak 6, astelehena

18.30 Bideo foruma, Ana larrieta psikologoaren eskutik. Pelikula bat ikusi eta ondoren ikusitakoaren inguruko kafe tertulia.

Lekua: Kultur Etxean

Martxoak 7 Martizena

17.00: Kukumarroaren irteera Kurtur Etxetik

18.00 Eskoriatzako bandarekin mozorrotuen kalejira, pilotalekutik irtanda.

19.00 "Herri lhauteria"

Gure ohiturak galdu ez daitezen eskoriatzar guztiok animatu nahi zaituztegu ekintza honetan parte hartzera. Dantza ikasi nahi duzenok martxoaren leian, arratsaldeko 7.30etan frontoian duzue aukera.

Animatu zaitzete!

Martxoak 8, eguastena.

19.30 Emakumearen egun Internazionala ospatzeko ekitaldia plazan: musika, trikitilariak, txalapartariak...

Martxoak 11, larunbata.
Intsumiso Eguna

11.00 Kotxekarabana

12.30 Trikitilarietako poteoa

14.30 Bertsolarietako poteoa

17.00 E.G.A.S taldeak egindako parodia militarra

19.00 eta 21.30: Rock kontzertua hainbat tabernatan

22.00 Sorpresa

24.00 Manifestazioa

Egun honetan Amuska Taldeak Emakumearen Eguna ospatzeko afaria antolatu du Gure Ametsa jatetxean. Ondoren dantzaldia.

Martxoak 14, martizena

19.00: Hitzaldia Kultur Etxean **"Nicaragua, Guatemala eta Colombiako egoera"**

Hizlariak: Fco. Javier Montoya (Nicaragua), Tomás Pedro Pablo Vesasques Xon (Guatemala) eta Gloria Maria Arboleda (Colombia).

Hitzaldi honekin batera, harrera ekitaldi bat eta afari bat ere antolatu da.

Afarai **martxoaren 24an** izango da Egokiena elkartearen.

Izena emateko tokiak: Arrano eta Mirentxu tabernak.

Martxoak 16, eguena.

19.00 Hitzaldia Kultur Etxean **"Emakumearen egoera Chiapas eta Guatemalan"**

Hizlariak: Merit Evangelista (Chiapas) eta Carlota Eugenia Cáceres (Guatemala).

JAIOTZAK

- Olaia Benito Blanco
2000.02.09



ESKORIATZA

Udaletxea	943-714407
Udal Bulegoak	943-714532
Udaltzaingoa	943-714407
Euskaltegia	943-792168
Kultur-Etxea	943-714688
Gizarte-Laguntzailea ...	943-714688
Kiroletxea.....	943-715328
Liburutegia.....	943-714688
Luis Eceiza.....	943-714938
Jose Arana-Almen Ikastola	943-714486
Almen	943-714964
Museo-Eskola	943-714688
Ze Barri?	943-715434
Talde Antimilitarista ...	943-714537
Irakasle Eskola	943-714157
Osakidetza	943-714452
Telesko	943-714917
Taxia	943-714059

BESTELAKOAK

Eskualde-Ospital (Arrasate) ...	943-795300
Gurutze-Gorria (Bergara) ...	943-765576
Ertzaintza (Arrasate) ...	943-797199
Suhiltzaileak (Oñati) ...	943-792800
Renfe (Zumarraga)	943-721515
Renfe (Gasteiz)	945 232030
Pesa (Arrasate)	902 101210
Larrialdiak (Arrasate)...	943 771043
SOS Deiak	112

GORA EUSKAL HERRIAREN ALDE, LAN EGIN ETA BORROKATZEN DUTEN EMAKUMEAK,

Aupa Marisol, eutsi gogor!

Eskoriatzako Ezker Abertzalea.



1979. urteko urdelarero egunean ateratako argazki hau topatu dugu Jose Arana Ikastolako hurrei. Bertan gaur 27 urte dituzten gazteak agertzen dira, eskutan janariz betetako ziria dutelarik. Besteak beste, Asier Biteri, Pello Sologaiztoa, Xabier Legorburu, Ainhoa Gandarias, Karlos Arana, Igor Abasolo eta Lourdes Beitia agertzen dira. Gure eskerrik beroenak argazki hau utzi diguten Ikastolako irakasleei.



Udalaitz, S.A.



Musakola Auzoa, z/b • Tfnoak: 943 79 18 80 / 943 79 21 25 / 943 79 24 11 • Faxe: 943 79 21 25 • 20500 ARRASATE

burujabetza bidean

hamaiika arrazoi

abstentziorako

1 *duintasuna*

5 *heldutasuna*

9 *gure ekonomia*

2 *demokrazia*

6 *ardura politikoa*

10 *gure kultura*

3 *bakea*

7 *koherentzia*

11 *herri honen
etorkizun askea*

4 *askatasuna*

8 *ziurtasuna*

*Espainolak ez garelako
Abstentzioa*

